

blong, Manex Goyhenetche, Hendrike Knörr, Jose Anjel Irigaray, Patxi Zabaleta, Fermin Ijurko, Xabier Mendiguren, Juan Jose Zearreta, Jose Antonio Retolaza, Imanol Laspiur, Jose Antonio Letamendia, Juan Garmendia Larrañaga, Jose Maria Aranalde, Juan Maria Torrealday, Mikel Atxaga, Jose Maria Iriondo eta Jabier Aranburu jaunak.

Idazkari-ordezkoak, Yose Paulo Ulibarriren omenez abuztuaren 17an Okendon (Araba) egingo den ospatzearen programa irakurri du.

Azkenik, batzarkideen artean elkarrizketarako aukera eman da eta Teri Ibarrola andereak hiru herri ipui kontatu ditu, Murelagako euskara jatorrean.

Honenbestez bukatutzat eman da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-VII-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko uztailaren 30ean, arratsaldeko laurretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, X. Diharce, E. Erkiaga, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxeleña, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, I. Berriatua, X. Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Oregi, I. Sarasola, J. Zaitegi, M. Zarate, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Larre, Larzabal, Dassance, Davant eta Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko eta ekaineko batzar agiriak onhartu dira.

Euskaltzainburu jaunak Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País elkarteko buruetariko zen Alvaro del Valle Lersundi jaunaren hil berria adiarazi du. Bere gogoia gure alde eta euskararen alde hainbeste aldiz agertu zuenez eta

inoiz elkarrekiko har-emanetan hain lagunkiro agertu zitzai-gunez, bere fameliari eta R. S. V. de los Amigos del País-ko zuzendaritzari Euskaltzaindiaren partetik doluminak igortzea eskatu du.

a) *Har-emanak*

Educación y Ciencia Ministerioak herri hizkuntzeri buruz irakaskintzarako emana duen dekretu berria irakurri da. (B. O. del Estado, número 156, 1 de julio 1975). Euskara salbatzeko aski ez bada ere, Ministerioari erantzuna ematea pentsatu da, irakaskintzarako jarri dituen lege horik behar bezala aurrera eramaten ahalegintzeko eskatuz, behar diren bideak hartuaz.

Bilboko Casa de Galicia delakoak Gabriel Aresti euskaltzain laguntzaile zenaren heriotzagatik doluminak agertuaz.

1975eko "Xenpelar" bertso-paper saria, Donostiako CAT (Centro de Atracción y Turismo) delakoaren diruz Euskaltzaindiak antolatua. Oinarriak betikoak. Eta epai-mahaia osatzeko jaun hauek izendatzen dira: A. Irigoyen, A. Zavala, F. Artola (Bordari), J. M. Aranalde eta J. M. Lekuona jaunak.

1975eko "Tx. Agirre" eleberri sariaren epea bukatu da, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren diruz Euskaltzaindiak antolatua. Epai-mahaia izendatzen da: E. Erkiaga, I. Sarasola eta M. Zarate jaunak.

Nafarroako Foru Diputazioak, aurtengo diru laguntzaz 100.000 pezeta eman dizkigu, orainarte 50.000 pezeta ematen izan ditu, eta Azpeitiko udaletxeak 10.000 pezeta. Esker-rak emango zaizkie.

Bilboko Escuela Oficial de Idiomas-i, bere hizkuntza irakaskintzako programan euskara sartzearen eskaria egitea pentsatu da, eta era honetan idatziko zaio.

Hartu diren liburuak:

Liburu zainak irakurri du hartu direnen zerrenda: Gipuzkoako Aurrezki Kutxak emana, *Hutsatik esperantzara*, J. M. Irigoyen eta *Heriotzaren eta bizitzaren mugotako ene hitzak*, I. Zubizarretarenak, 1974ko Irun sariak; Gero argitaldariak emanak, *Euskal Literatura III*, J. Erzibengoa eta Patxi Ezkiaga-rena; *Amaia*, I. Azkune eta J. M. Arrietak laburtua

eta euskaratua; *Izarren begietan*, Elgoibarko Ikastolako haurrak; Jakin argitaldaria eman, *Gizona abere hutsa da*, Lazkano Mendizabalena; X. Gereñok eman, *Txistu ikasbidea-Método de txistu*, B. Fernández-ena; J. Oregik bere lanen separatak, *Aditzeko askargille batzuei buruz*, *Otxoa-Arinen "Doctrina"* (1713) eta *Euskal aditzaz zenbait gogoeta*, hirurak "Fontes"en argitaratuak; *Euskarri*, Gipuzkoako Gau Eskolen elkartearen boletina; *Swahili hiztegia* (A. classified Dictionary of swahili) (With Swahili, english, and japanese indexes), Tsuneo Morino-rena egileak berak bidalia; J. M. Satrustegik *La Leyenda del dragón en las tradiciones de Urdiain* bere lana "Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra" delakoan argitaratua; S. de Insaustiren *División de Guipúzcoa en Valles* lana, Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián aldizkarian argitaratua; Cooperativa de Enseñanza "Lauro" 1975eko memoria eta ikasleen izendagia; "Butlletí interior informatiu d'Omnium Cultural" 1-etik 10-erako zenbakiak Omnium Cultural-ak berak bidaliak; "Colegio Oficial de Aparejadores y Arquitectos Técnicos de Vizcaya"-ren aldizkariaren 2. zenbakia (Euskarazko sail bat du); *Grupo Gorutz* artista taldearen liburuxka, Lankide Aurrezkiak ergitaratua eta bidalia; *La poesía actual vasca*, M. A. Marrodan, separat; *Politica Educativa*, Cruz Mz. Esteruelas-en Corteetako hitzaldia. Guzietei eskerrak ematea erabaki da.

Diruzainak 1975eko apirila, maiatza, ekaina hiru hilabeteetako kontuak adiarazi ditu. Orotara: zegoena, 275.581,36; gehitua, 614.752,59; urritua, 649.334,28; dagoena, 240.999,67 pezeta.

b) Goizeko bilkuraren berri

Euskaltzain buruak eman du goizeko bilkura bereziaren berri, zortzi urtera arteko eskola hiztegiaren batzordeak eta euskaltzainak bildurik, 20.zerrenda (azken zerrenda) aztertea bukatu dutela. Eta, hiztegi hau, azken orraztapen baten ondorean laster argitaratuko dela. Otoi, eskola hiztegi saiaera bezala.

Aditz batuaren batzordekoak, beren lana aurrera eramateko, eskema batzuk markatu dira eta batzordea laster hasiko da bileretan.

d) *Euskaltzaindiaren iker lanak*

Luis Mitxelena jaunak Euskaltzaindiaren iker lanei bu-
ruzko txostena irakurri du. Iker lanak jarraitzeko bide batzuk
markatu ditu. Hiztegi osatzeak eta batez ere gramatikazko
ikerketak bizkortu beharra adiarazi du. Batez ere, bereiz-
kuntze zehatzak egiteko puntu batzuk ikutzen ditu. Gramati-
ka arloan ilunbetan dauden hauzietan lan egiteko, eta, eus-
kalkirik euskalki azentua eta sintaxis kontua hobeto bildu eta
aztertu. Bere txostenaren barna zenbait exemplu aipatu ditu.

e) *Aditz batuaren gora-beherak*

Patxi Altuna jaunak, batzordeko idazkaria den aldetik,
berak gertatu eta irakurri du txosten bat. Jokabideen berri
jakin nahi dutenentzat gertatua da behinik-pehin, onartutako
adizkiak eta baztertutakoak nola eta zergatikakoa adiaraziz.
Batzordeak 1971-1973 urteetan egin zituen bilkura eta era-
baki nagusiak aipatzen ditu eta baita ere aditz laguntzailean
hartu behar izan ziren erabakirik latzenen xehetasunak.
Geroan jakin dezaten zer nolako hautapenak egin ziren.

f) *Ulibarriren omenez*

Arabako Okondon (Okendo) abuztuaren 17an egingo den
batzarraren berri eman da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-VIII-17

BILTZAR IREKIA OKONDON ULIBARRIREN OMENEZ

Batzar agiria

Okondoko (Araba) Gizarte Etxean, 1975eko abuztuaren
hamazazpian, goizeko 11 t'erdietan, meza nagusiaren ondo-
tik, biltzar irekian bildu dira: L. Villasante euskaltzainburua,
A. Arrue, A. Irigoyen, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak;